


ISEI - IVEI

**Rs2.2.1 CURRICULUM KONPETENTZIA DBHko 2.
MAILAN: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-
KOMUNIKAZIOA.**





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

Edizioa: 2014ko martxoan
© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatuta eta Ikertze Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

LAN TALDEA

Araceli de Francisco
Inmaculada Tambo
José Ramón Ugarriza
M^ñ Paz Martínez

KOORDINATZAILEA

M^ñ Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



| | |
|---|-----------|
| Sarrera | 4 |
| Rs2.2.1.1 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian</i> eta dimentsioetan (<i>Irakurmena, Entzumena eta Idazmena</i>) lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera, orokorra eta sexuaren arabera. | 6 |
| Rs2.2.1.2 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera. | 7 |
| Rs2.2.1.3 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian</i> lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua). | 8 |
| Rs2.2.1.4 taula: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. | 9 |
| Rs2.2.1.4 grafikoa: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa <i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. | 10 |



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) 2. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011 eta 2013¹.

Adierazle honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleek *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* duten errendimendu-mailari buruzko informazioa ematen du. Emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2009, 2010, 2011 eta 2013n gauzatu ziren Ebaluazio Diagnostikoetan lortutako emaitzak dira, 250 puntuko batez bestekoa, 50 puntuko desbiderapen tipikoa eta hiru errendimendu-maila dituen eskala batean.

Emaitzak zenbait aldagai kontuan izanik aztertu dira: sexua, indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmalarekiko egokitasuna (jaioturtearen arabera), geruza (hezkuntza-sarea² eta irakasteredua³), gurasoen ikasketa mailarik altuena, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

EAE n 2009, 2010, 2011 eta 2013. urteetan, DBHko 2. mailako ikasleen % 44,2, % 46,3, % 46,5 eta % 47,5, hurrenez hurren, sare publikoan zeuden, eta % 55,8, % 54,8, % 53,5 eta % 52,5, itunpeko sarean.

2013ko Ebaluazio Diagnostikoan, *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* batez besteko puntuazio orokorra 256 izan zen. 2009tik (250) 2013ra (256) batez besteko puntuazio orokorreari dagokienez, bilakaera positiboa izan dela ikus daiteke. Hala ere, kompetentzia horretako batez besteko emaitzarik onena (258) 2010ean izan da. 2009, 2010, 2011 eta 2013 Ebaluazio Diagnostikoetan, neskek mutilek baino batez besteko puntuazio altuagoak lortzen dituzte.

Kompetentziaren hiru dimentsioetatik, 2009 eta 2013. urteetan, bai *Irakurmenean* baita *Idazmenean*⁴ ere puntuazioa berdina izan da (250). *Entzumenean*, berriz, batez besteko puntuazioa (250) puntuetatik (266) puntuetara pasatu da. Aztertutako lau urteetatik 2013.ekoa izan da puntuazio altuena. Neskek hiru dimentsioetan (*Irakurmenean*, *Entzumenean* eta *Idazmenean*) lortu dituzte mutilek baino puntuazio altuagoak lau ebaluazioetan. Alderik handiena *Irakurmenean* izan da, 2009an, mutilek (240) neskek (261) baino 21 puntu gutxiago lortu baitzituzten. Alderik txikiak *Entzumenean* izan dira: 2010ean neskek mutilek baino 8 puntu gehiago lortu baitzituzten, eta 2013n, 7 puntu gehiago.

2013n DBHko 2. mailako ikasleen % 62,9 *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* errendimendu-maila ertainean eta aurreratuan zeuden, eta % 37,1, hasierako errendimendu-mailan. Bilakaerari buruzko datuek adierazten dute, 2009tik

¹ Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011 eta 2013. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

² EAE n bi hezkuntza-sare daude, publikoa eta itunpekoa, biak diru publikoarekin finantzatuak.

³ EAE n hiru irakasteredu daude: A eredu (irakas-hizkuntza gaztelania), B eredu (irakas-hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D eredu (irakas-hizkuntza euskara).

⁴ *Idazmen*-proba urtero aldatzen denez, ezin da konparatu eta batez besteko puntuazioa 250 da beti.



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



2013ra errendimendu-maila erdikoan eta aurreratuan 1 puntuko hobekuntza izan dela, emaitzarik onenak 2010ean izan zirela, hasierako errendimendu-mailako ehunekorik txikiena (% 33,6) izan baitzen, eta errendimendu-maila erdiko eta aurreratuko ehunekorik altuena izan baitzen (% 66,5). Hasierako errendimendu-mailan mutilen ehunekoa neskena baino handiagoa izan zen lau urte haietan; errendimendu-maila erdikoan eta aurreratuan, berriz, nesken ehunekoa mutilena baino handiago izan zen.

2013. urteko batez besteko emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua) aztertu ondoren, emaitzarik altuena (275) itunpeko D ereduak lortu dituela ikus dezakegu, eta gero D eredu publikoak (264); *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* A eredu publikoak (178) eta itunpeko A ereduak (205) izan dituzte emaitzarik apalenak. Joera bera izan zen 2009an, 2010ean eta 2011an.

Indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), irakasmilarekiko adin-egokitasuna, hezkuntza-sarea, gurasoen ikasketa mailarik altuena, jaiolekua eta familiako hizkuntzaren aldagaiei dagokienez, 2013ko ebaluazioan DBHko 2. mailako ikaslearen profila honako hau da: *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian*, emaitzarik altuenak lortzen dituen ikasleak ISEK indize ertain-altua du (% 70,5), irakasmilarekiko adin egokia du (% 69,8), bere gurasoek goi mailako ikasketak dituzte (% 70,6), autoktonoa da (% 65,1) eta etxean euskaraz hitz egiten du (% 83,8). Kompetentzia honetan, 2013ko erdiko maila eta maila aurreratua batuz, puntuaziorik apalenak lortzeko eraginik handiena duten aldagaiak honako hauek direla antzeman daiteke: etorkina izatea (% 27,1), gurasoek derrigorrezko ikasketak bukatu gabe izatea (% 27,4), irakasmila errepikatu izana (% 28,8) eta ISEK indize apala izatea (% 43,4).



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs2.2.1.1 taula eta grafikoak:

DBHko 2. mailako ikasleek *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian eta dimentsioetan (Irakurmena, Entzumena eta Idazmena⁵)* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera.

| | | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 |
|-------------------|---------|------------|------------|------------|------------|
| Guztira | Guztira | 250 | 258 | 256 | 256 |
| | Neskak | 259 | 264 | 263 | 263 |
| | Mutilak | 242 | 252 | 249 | 250 |
| <i>Irakurmena</i> | Guztira | 250 | 257 | 255 | 250 |
| | Neskak | 261 | 264 | 264 | 258 |
| | Mutilak | 240 | 250 | 247 | 242 |
| <i>Entzumena</i> | Guztira | 250 | 260 | 257 | 266 |
| | Neskak | 256 | 264 | 261 | 269 |
| | Mutilak | 245 | 256 | 252 | 262 |
| <i>Idazmena</i> | Guztira | 250 | 250 | 250 | 250 |
| | Neskak | 258 | 258 | 258 | 258 |
| | Mutilak | 243 | 242 | 242 | 242 |



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011 eta 2013.

⁵ *Idazmen*-proba urtero aldatzen denez, ezin da konparatu eta batez besteko puntuazioa 250 da beti.



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs2.2.1.2 taula eta grafikoak:

DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.

| | Errendimendu maila HASIERA | | | Errendimendu maila ERDIA | | | Errendimendu maila AURRERATUA | | |
|------|-------------------------------|--------|---------|-----------------------------|--------|---------|----------------------------------|--------|---------|
| | Guztira | Neskak | Mutilak | Guztira | Neskak | Mutilak | Guztira | Neskak | Mutilak |
| 2009 | 38,1 | 30,5 | 45,0 | 43,6 | 46,1 | 41,3 | 18,4 | 23,4 | 13,8 |
| 2010 | 33,6 | 28,9 | 38,0 | 42,4 | 44,1 | 40,7 | 24,1 | 27,0 | 21,3 |
| 2011 | 36,0 | 30,5 | 41,3 | 42,7 | 44,5 | 41,0 | 21,2 | 25,0 | 17,6 |
| 2013 | 37,1 | 31,8 | 42,3 | 41,7 | 43,0 | 40,5 | 21,2 | 25,2 | 17,3 |



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011 eta 2013.



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs2.2.1.3 taula eta grafikoak:

DBHko 2. mailako ikasleek *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).

| | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 |
|-------------|------|------|------|------|
| A Publikoa | 166 | 172 | 174 | 178 |
| B Publikoa | 240 | 240 | 237 | 226 |
| D Publikoa | 263 | 268 | 265 | 264 |
| A Itunpekoa | 194 | 209 | 203 | 205 |
| B Itunpekoa | 254 | 258 | 252 | 248 |
| D Itunpekoa | 268 | 278 | 276 | 275 |
| Guztira | 250 | 258 | 256 | 256 |



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011 eta 2013.



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:

Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs2.2.1.4 taula:

DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekin, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

| | | Ikasle % | | | | Hasierako maila | Erdi-maila 2013 | Maila aurreratua |
|------------------------------------|--|----------|------|------|-------------|-----------------|--------------------|------------------|
| | | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | | | |
| ISEK | Maila baxua ² | 16,7 | 17,4 | 16,9 | 14,9 | 56,6 | 32,9 | 10,5 |
| | Maila ertain baxua ² | 22,5 | 21,9 | 22,1 | 25,0 | 37,3 | 43,1 | 19,5 |
| | Maila ertain altua ² | 28,2 | 29,0 | 29,2 | 28,4 | 29,5 | 44,5 | 26,0 |
| | Maila altua ² | 32,6 | 31,6 | 31,8 | 31,7 | 34,7 | 42,3 | 23,0 |
| Egokitasuna | Adina bat dator ikasmalarekin | 82,0 | 81,2 | 83,0 | 83,1 | 30,2 | 44,9 | 24,9 |
| | Adina EZ dator bat ikasmalarekin | 18,0 | 18,8 | 17,0 | 16,9 | 71,1 | 26,3 | 2,5 |
| Titulartasuna | Publikoa | 43,9 | 45,0 | 45,0 | 44,6 | 35,9 | 43,1 | 21,1 |
| | Itunpekoa | 56,1 | 55,0 | 55,0 | 55,4 | 38,1 | 40,7 | 21,2 |
| Gurasoen ikasketa mailarik altuena | Derrigorrezko ikasketak bukatu gabe | 2,9 | 2,6 | 2,9 | 2,8 | 72,6 | 23,7 | 3,7 |
| | Derrigorrezko ikasketak | 16,9 | 15,6 | 17,5 | 15,5 | 50,6 | 39,0 | 10,3 |
| | Batxilergoa, HZ | 32,5 | 32,9 | 36,4 | 34,1 | 37,7 | 43,3 | 18,9 |
| | Goi mailako ikasketak | 42,7 | 42,1 | 43,2 | 47,6 | 29,3 | 42,7 | 27,9 |
| Jaioterrria | Autoktonoa | 95,5 | 95,1 | 94,8 | 94,2 | 34,9 | 42,9 | 22,2 |
| | Emigratzailea | 4,5 | 4,9 | 5,2 | 5,8 | 72,9 | 22,9 | 4,2 |
| Familia-hizkuntza* | Euskara | 15,7 | 20,4 | 20,7 | 22,5 | 16,3 | 45,2 | 38,6 |
| | Euskara EZ dena | 83,5 | 75,9 | 79,3 | 76,6 | 43,2 | 40,7 | 16,1 |

*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011 eta 2013.



Rs2.2.1

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan:


Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Rs2.2.1.4 grafikoa:

DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2013. urtea.



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2013.